




IHOTE, HAGO!

FRANCIS IRIGOIEN

Gorde zure lekua
Azken eguna: martxoak 19



 **guaixe**
astekaria

948 564 275 | publi@guaixe.eus | 661 523 245 | publicitate@guaixe.eus | 619 821 436



**ERAIKUNTZA
GEHIGARRIA
2025**

MARTXOAREN 28AN

IHOTEAK



Ihote konstelazioa

Sakanan barna irudimenaren makina bat izartxo piztu dira eta mozorro forma hartu dute ihote izar multzo ederrak sortuz hainbat herritan. Jakina, izar batzuk berezko argiz dir-dir nabarmena egiten zuten, apalago bestiak. Baina oraindik gehiago behatzeko aukera bada



ETXARRI ARANATZ



ALTSASU



ARBIZU - UTZITAKOA




IRURTZUN

Er[✓]iti aluminio
PVCAkaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Kalitatea, harrera ona
eta prezio ezin hobea







BAKAIKU



LIZARRAGA - UTZITAKOA

ALTSASU

MARTXOAK 8 Larunbata
PIÑATA EDO HIRI IHOTEA
12:00-14:00 Haize Berriak bandak girotutako kalejira eta bermuta, Foru plazan eta inguruetan.
20:00-22:00/24:00-03:00 Jamaica Show taldearekin dantzaldia.



ARTXIBOA

OLATZAGUTIA

MARTXOAK 8 Larunbata
KARROZAK EDO HIRI IHOTEA
12:00 Karrozen irteera.
17:00-19:30 Pasai txaranga.
19:00-23:00 Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.
20:00 Mozorroen lehiaketako sari banaketa, San Migel plazan.

ZIORDIA

MARTXOAK 8 Larunbata
HIRI IHOTEA
Eguerdian, mozorrotutako kuadrillak aterako dira. Ondoren, bazkalduko dute eta arratsaldean kalera aterako dira.

ZURE PUBLIA

HEMEN

PUBLI@GUAIXE.EUS
948 564 275(2)
661 52 32 41

EguRRE
ETXEKO EGURRA
Leta e dandakile

Kalitatezko egurra
eta pelleta

ETXEKO ATERAINO

662 11 77 45

Txoooootx!

JUANLUZENA SAGARDOTEGIA

ODERITZ
948 604 571 | 680 652 183

PORTUKO

Altsasu: 948 563 822 (denda)
948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz: 948 460 988



LAKUNTZA



OLATZAGUTIA



LAKUNTZA



IRURTZUN



URDIAIN - FRANCIS IRIGOIEN



ARBIZU - UTZITAKOA



IRURTZUN - MAIALEN HUARTE



UHARTE ARAKIL



LIZARRAGA



UNANU



BAKAIKU



MARTXOAK 10-14

- 10:00** Agurra, eguraldia, edukiak aurkeztu eta eguneko kanta
- 10:15** Prentsaren azalak
- 10:20** Albisteak eta kirolak
- 10:30** Hizketan
- 11:05** Solasaldia Karrape eta Aralar irratiekin
- 14:00** Errepikapena

Hizketan

- Martxoak 10** Ander Corchero
- Martxoak 11** Nekane Villaroel
- Martxoak 12** Bertso saioa (Bertsoa.eus)
- Martxoak 13** Maurizio Faedda Delpiano UEMaren kanapainaz
- Martxoak 14** Agenda berezia





ETXARRI ARANATZ



ITURMENDI



HIRIBERRI ARAKIL



ITURMENDI



Martxoak 10-26 / errigora.eus

Eskatu Nafarroa erdi eta hegoaldeko
oliba-olio birjina estra, kontserbak,
ardoa, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz
etiketatuta eta jatorrizko prezioan

EGIN
ESKAERA
ORAIN! >>>





BAKAIKU



UNANU



UHARTE ARAKIL



ALTSASU



ETXARRI ARANATZ



LAKUNTZA



ARRUAZU - AITOR SATRUSTEGI



OLATZAGUTIA

KINTOAK



UHARTE ARAKIL Sei kinto ubertearrak majo pasa dituzte kinto ospakizunak iraun dituen hiru egunak. Gainera, ihote segizioarekin bat egin zuten.



LAKUNTZA Hamaika kintoek eta hamabost kinto gazteek majo pasatu zuten astelehen eta astearteko ospakizuna. Giro ederrean joan dira egunak.



ARBIZU Sakana erdialdeko kinto ospakizunik luzeenak dira arbizuarrenak. Ajolabayek izena hartu duen hamabostekoteak ostiraletik asteartera egon dira haien festa ospatzen.




UTZITAKOA

ETXARRI ARANATZ Kinto ospakizunak astelehen gauean eta asteartean izan zituzten 25 gazte etxarriarrek. Kinto eskea, jan-edanak eta musika ez ziren falta izan.



M8

Emakumeen
Nazioarteko Eguna



Ez zaitzatela nahasi...

Gezur Matxistekin

**“Soldata arrakalarik
ez dago”**

Nafarroan, gizonezkoen batez

besteko soldata gordina 32.005 eurokoa da;

emakumezkoena, berriz, 26.033 eurokoa.

Iturria: Nafarroako Soldata Egituraren Estatistika. 2022. urtea.





ASTEKOA

ANE ZELAIA RUIZ DE EGINO

Ez edozein modutan

Inauteriak iritsi dira Euskal Herrira. Hartza eta lurra esnatu dira, eta udaberriari ongi etorria emateko garaia heldu da. Kaleak kolorez, musikaz eta mozorroz beteko dira, baina ospakizunaren atzean badira hausnartu beharreko hainbat kontu ere.

Izatez, inauteriak eztabaidagarriak dira. Askotan, pribilegiotik abiatuta, zapaldutako kolektiboak estereotipatzen eta estigmatizatzen ditugu. Mozorroetan islatzen den iruditeria ez da neutroa: afrikarrez mozorrotzen garenean (Afrika osoa errealitate bakar bat izango balitz bezala), zingaroz, kaldereroz edo "indioz" janzten garenean, guk geuk sortu dugun irudi estereotipatu bat erreproduzitzen ari gara. Ez dugu kontuan hartzen pertsona horien errealitatea, baizik eta gure ikuspegitik eraikitako karikatura bat.

Mugimendu antiarrazistetako kideek aspalditik salatu dituzte mozorro arrazistak, eta hauei buruzko gogoeta publikoa plazaratu dute. Eta guri dagokigu ardura. Gu gara gure herrietako kaleak mozorrotuta betetzen ditugunak, eta gu gara gure jokabideak birpentsatu behar ditugunak.

Ez dago aitzakiarik: arrazismoari, misoginiari edo transfobiari eustea ez da tradizio bat, baizik eta zapalkuntza betikotzea. Zapaldutako kolektiboak kontuan hartzea dagokigu, eta inauteriak baliatu behar ditugu geu ez garen norbaiten azalean jartzeko, baina betiere errespetutik eta hausnarketatik.

Inauteriak gozatzeko dira. Denek gozatzekoak. Ez guk bakarrik.

HARA ZER DIEN

Mugak jartzea

SAKANAKO PREBENTZIO ZERBITZUAK

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako Prebentzio eta Familia Programatik urtero familiengana zuzentzen gara. Urteak daramatzagu familiekin lanean, seme-alaben heziketaren inguruan eta baita familientzako hain garrantzitsua den osasun emozionala ere landuz.

Aurten, berriz, familien artean egutegi bat banatu dugu, non hilabete bakoitzean ideia bat aurki dezakegun. Martxoko ideia hauxe da: mugak jartzeak segurtasuna, babesa eta konfiantza sentiarazten die seme-alabei. Gainera, beren muga propioak jartzen eta EZETZ esaten irakasten die.

Seme-alaben heziketan muga argi eta sendoak ezartzea funtsezkoa da haien ongizate emozional eta garapen pertsonalerako. Mugak ez dira bakarrik beharrezkoak etxean bizikidetzat harmoniatsua bermatzeko; haurrei segurtasun, babes eta

konfiantza zentzu sakona ere ematen diete. Zein portaera diren onargarriak eta zein ez jakitean, haurrak seguruago sentitzen dira, haiengandik zer espero den eta haien ekintzen ondorioak zein diren ulertzen baitute.

Mundua argiago interpretatzen eta erabakiak modu helduagoan hartzen laguntzen dien erreferentzia esparru gisa jarduten dute mugek. Zentzuzko arau eta mugak ezartzen diren ingurune batean hazten diren haurrek gaitasun handiagoa dute beren emozioak kudeatzeko, erantzukizunaren kontzeptua ulertzeko eta arau sozialak errespetatzen ikasteko. Gainera, muga horiek babes-sentsazioa ematen diete, gurasoen edo zaintzaileen babesa dutela sentitzen baitute, eta haiek beren ongizateaz arduratzen dira eta koherentziaz jokatzeko modu egokian orientatzeko.

Mugek haurrei erakusten dieten funtsezko alderdi bat da nola jarri beren mugak. Helduek ezarritako arauak errespetatzen ikasten duten heinean, besteekiko harremanetan beren mugak ezartzearen garrantzia ere ulertzen hasten dira.

Ikaskuntza hori funtsezkoa da haurraren garapen pertsonalerako; izan ere, zerbait eroso edo egoki ez zaienean "ez" esateko gaitasuna ematen die, eta horrek autoestimua indartzen die eta egoera zailak modu asertiboan maneiatzen laguntzen die.

Laburbilduz, mugek segurtasuna eta babesa eskaintzeaz gain, beren burua eta besteekiko harremanak zaintzen dakiten heldu arduratsuak izateko prestatzen dituzte haurrak. Beren mugak ezartzen irakastea da gurasoek eman dezaketen ikasgairik baliotsuenetako bat.

GUTUNA

Lehen, pilota

IMANOL CARABIAS

PILOTAJAUKU, ALDABIDE, ABAXITABIDEA, AUÑAMENDI, ATARRABIA, AOIZ, ARREBOTE, TXARUTA, BERRIOZAR, ILUNBERRI, BORTZIRIAK, ERREKA, AURRERA, AMESKOA, ARKUPE, LARRAUN, ADOS, CANTOLAGUA, SAN SEBASTIAN ETA UMORE ONA PILOTA KLUBEN IZENEAN

Behean sinatzen dugunok gure ezinegona eta haserrea adierazi nahi dugu UPNk eta

PSOEk Iruñeko Udalean eta Nafarroako Parlamentuan hartu duten jarreragatik. Alegia, Euskal Federazioak nazioarteko txapelketan parte hartu ahal izatea gaitzesteko mozioa, Euskal Pilotaren Nazioarteko Federazioak adierazi bezala.

Zentzugabekeria eta oso jenio txarrekoa iruditzen zaigu pilotaren gaia ariete politiko gisa erabiltzea. Ez

dakigu beste gai garrantzitsuago batzuk ez ote dituzten konpontzeko, baina lotsagarria da gure bozeramaile izan nahi izatea, gu ezertarako kontuan hartu gabe. Gure ustez, pilotari batek, klub batek erabakitzen badu Espainiako Federazioarekin jokatzeko, kirol edo diru aldetik hobetzearen alde, eskubide osoa du egiteko. Baita Euskal

Federazioarekin jokatzekoa ere. Oso erraza da. Pilotariaren onena bilatzea, klubaren onena. Kirolean haztea...

Jakitun gara zer dakarten politika zorrotz eta atzerakoi hauek, duela 25 urte zoritxarrez ondorioak utzi zituztenak. Federazioa meloi bat bezala zatitu zuten. Egoera horretatik denok atera ginen galtzaile: pilota, pilotariak,

klubak eta Federazioa. Gezurra dirudi politika negargarri horietan tematzea.

Pilotaren alde denok norabide berean arraun egin beharrean, gu modu zakarrean erabiltzen gaituzte etekin politikoak ateratzeko. Egun osoa frontoian ematen dugunok erabaki behar dugu zer den onena pilotarendako, pilotariendako, klubendako eta Federazioarendako.



www.guaixe.eus

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
erredakzioa@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maidor Betelu Garboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Irratia:
Eneida Carreño Mundiñano
irratia@guaixe.eus
948 567 074

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus
661 523 245
Itziar Gastearena Colmenero
publizitatea@guaixe.eus
619 821 436

ARGITARATZAILA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Maketatzailea:
Lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Patxi Flores Lazkoz
Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Irurtzungo plaza ondoko jolas parkeak estalpea du

Bost guneko jolas parkearen zati bat da estali dena, 140 m² hain zuzen ere

IRURTZUN

Plazako frontoiaren atzeko aldean dagoen haurrentako jolas parkeak estalpea du dagoeneko. Plazako frontoiaren frontisaren atzean dauden jolasarako elementuak estali dira. 140 metro karratu ditu estal-

peak, poliester oihal tenkatu batez egin dago, eta hari metalezko egitura batek eusten dio. Parte hartze aurrekontuen bidez lan hori egitea erabaki zuten irurtzundarrek. Baina 2023ko 35.000 euroak nahikoa ez zirenez, udalak beste 45.000 euro

gehiago jarri zituen 2024an lan hori egiteko. Estali den jolas parkeak bost jolasgune ditu. Lanak Mader-play SM enpresak egin ditu 78.492,70 euroren (BEZ barne) truke. Lanak finantzatzeko udalak Hydro enpresaren gizarte politikaren 9.950 euroko ekarpena jaso du.

Irurtzunek aurten, atzera ere, parte hartze aurrekontuak izanen ditu. Aurki emanen dute horren berri. Udalak jakinarazi duenez, 40.000 euroko poltsa izanen da irurtzundarrek aukeratutako inbertsiora bideratzeko.



Jolas parkearen guneetako bat estalpe azpian.



Lanen lehen fasea da oraingoa. Beste bi izanen dira.

Aterpeko lehen faseko lanak aurreratuta daude

Zikloturistak eta erromesak hartuko ditu Itxesian jasotzen hasi diren eraikina

UHARTE ARAKIL

Uharte Arakilgo Udalak futbol zelaiaren eta igerilekuaren artean zuen eraikina bota eta berria jasotzeko lanak hasi ditu. Langileak hura eraitsi eta eraikin berriko zimenduak jarri eta lurpeko instalazioak jartzeko lanak egiten ari dira. Obrak 133.852,56 euroko (BEZ barne) aurrekontua du. Udalak Nafarroako Gobernutik lan horietarako zuzenean 90.000 euro jasoko ditu, EH Bilduk foru aurrekontuari aurkeztutako zuzenketa bati esker.

Obraren lehen fasea da gaur egun egiten ari direna. Bigarren fasean eraikina jasoko da. Horretarako Uharte Arakilgo Udalak Europako Next Generation funtseko Turismo Jasangarritasunerako Planeko dirulaguntza lortu du Cederna-Garalurren bidez. Lanen azken fasea eraikina janztea izanen da. Horretarako ere udala dirulaguntza bila


ari da. Lanek, guztira, 675.000 euroko aurrekontua izanen dute.

Itxesiko aterpeak 450 metro karratuko azalera izanen du eta dozena bat plaza izanen ditu, hiru gelatan banatuta. Gela bakoitzean lau pertsonarendako literak egonen dira. Haietako bat egokitua izan beharko du eta komuna pribatua izanen du. Beste bi geletakoez komuna partekatuta beharko dute. Logelez aparte, eraikinak harrera, ekipai gela, *office* txiki bat eta erabilera anitzeko gela izanen ditu.

Itxesian bertan udala igerilekuak berritzeko lanak egiten ari da. Igerileku handia ez da moldatuko eta 310 metro karratuko azalera izaten segituko du. Baina haren ura biltzeko kanala eta hondartzak bai berritzen ari dira. Gainera, igerilekurako bi sarbideetan irisgarriak diren bi dutxa jarriko dira. Bestetik, umeak plisti-plasta ibiltzeko bi igerilekuak kendu eta berribategiten ari dira, 78,6 m²-koa.

Mondragon
Unibertsitatea

Gure ikasleen ahotsa



Leire Maiza Razkin (Etxarri Aranatz)
Ikasketak: Batxilergoa Altsasuko Institutuan eta Mekatronikako goi mailako heziketa zikloa Goierri Eskolan
Gradua: Ingeniaritza Mekanikoko 4. maila

izan ditut unibertsitateko liburutegian. Gogorrena konstantziari eustea izan da niretzat, baina eraman daiteke bizitza sozialarekin.

Nola definituko zenuke Mondragon Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Metodologia praktikoa da eta konstante izatera behar-tzen zaitu. Egunerokoa ongi antolatzea oso garrantzitsua da, azterketak seihileko osoan zehar banatzen baitira eta tartean beti izan dut errekonstruzio-azterketaren bat...

Seihileko amaieran proiektu bat gauzatzen da. Hone-tan, askatasun handia dugu gure modura lan egiteko. Teoriaz gain, taldean nola lan egin eta nola anto-latu ikasten goaz.

Unibertsitateetik zer da gehien gus-tatzen zaizuna?, Eta zerbait hobetzeko?

Ikasgelan erabiltzen duguna, edukiak nahiz programak, egungo enpresek erabiltzen dituztenak dira. Teoriari bere garrantzia emanez, eta alderdi praktikoak bere tokia hartuz. Bestalde, lehen aipatu dudak konstantziarekin oso zorrotza izan beharra

dago. Eta despistatuz gero hiru hila-betetan ez duzu azterketa edo erre-kuperaziorik gabeko asterik...

Lanean egon zinen ikasten zenuen bitartean, Dual ereduari. Non egon zinen jardunean eta zer lan mota egiten zenuen?

Nire kasuan, Arrasateko medikuntza arloko enpresa batean izan naiz. Bertan nire lana mikromekanizatuak eta produktu auxiliarrak sortzea izan da, gehien bat. Lan honek erakutsi zidan zeinen anitzak diren mekanika gra-duaren irteerak.

Zer nolako ekarpena egin dizu ere-du dualak?

Dualean jarduteak nire burua inoiz baino gehiago antolatzea erakutsi dit. Alor pertsonalean, jende berria eza-gutu dut, baita enpresa batek barru-tik nola funtzionatzen duen ere.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Orain, Erasmusetik iritsi berria naiz eta praktikak eta gradu amaierako proiektua egiteko enpresa baten es-peroan nago. Beraz, orain nire GBLan ibiliko naiz lanean, buru-belarri.

Gradua amaitzerakoan, lana bilatu eta lanean hasiko naiz. Masterren bat ikastea ez baitago nire planen barruan, oraingoz.

"Dualean jarduteak nire burua inoiz baino gehiago antolatzea erakutsi dit"

Zergatik aukeratu zenuen Mekani-ka Ingeniaritzako gradua? Eta zer-gatik Mondragon Unibertsitatea?

Heziketa Zikloan ikusi nuen arloa gustuko nuela. Ez nuen argi mekani-ka edo elektronika aukeratu, baina ikasgaiak ikusi ondoren, mekanika aukeratu nuen. Dena den, argi nuen Mondragon Unibertsitatean ikasi nahi nuela zen, metodologiagatik.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Ingeniaritza mekanikoa ez da erraza... eta arratsalde dexente pasa behar

www.mondragon.edu/prest

Gizarte ekonomiari ibarrean bulkada emateko hitzarmena

Anelek eta Sakanako Garapen Agentziak hitzarmena berritu eta aurtengo jarduera plana zehaztu dute

SAKANA

Nafarroako gizarte ekonomiako enpresak elkartzen dituen ANEL elkarteak eta Sakanako Garapen Agentziak (SGA) duten lankidetzaren hitzarmena berritu zuten astelehenean. SGAko buru Aitor Larraza Carrerak azaldu zuenez, "akordioa berritzeak bi erakundeen arteko lankidetzaren indartzea du, gizarte ekonomia Sakanako ekonomiaren garapenerako eta enplegurako elementu gisa sendotuz". Larrazak oroitarazi duenez, "Gizarte ekonomia Sakana 2027 Estrategia Planeari zehar-

kako eremu estrategiko gisa sartu zenetik, aliantzak eskualdean kooperatiba ekimenak sortzen eta sendotzen lagundu du, enplegua sortuz eta iraunkortasunean eta parte hartzean oinarritutako enpresa eredua sustatuz". Gaineratu duenez, "aurten elkarlanean sakondu eta ildo berriak hitzartu ditugu".

Ibarrean kooperatibismoa eta gizarte ekonomia indartzeko garatuko diren ekimenen artean sei nabarmentzen dira. Aurten ere Sakanako Gizarte Ekonomia-ri buruzko Urteko Jardunaldia



Aurtengo ekintza planaren ardatzak ekintzailatza eta lankidetzaren bulkatzea dira. SGA

eginen da. Kooperatiben, enpresen eta tokiko eragileen arteko topagunea da, egindako jarduerak ebaluatzeko, behar berriak detektatzeko eta hobetzeko proposamenak sortzeko balio duena. Horrekin batera Lidergo Parte

hartzaileko Tailerrak izanen dira. Haien bidez kooperatiben arloan lidergo gaitasunak sendotzera bideratutako formazioak, kudeaketa eredu demokratiko eta jasangarriak bulkatuko dira. Bestalde, Enpresen Mentorizazio

Programak gizarte ekonomiako proiektu hasi berriei lagunduko die, ANELEko Mentoring Sarearen bidez, enpresa egonkortuen eta ekintzaile berrien arteko ezagutza trukea erraztuz.

Gainera, gazteen artean kooperatibismoa sustatzeko tailerrak egingen dituzte ikastetxeetan, adin goiztiarretatik gizarte ekintzailatza bulkatzeko helburuarekin. Horretaz aparte, gizarte ekonomiaren ereduaren interesa duten ekintzaileei aholkularitza ematen diete eta ANELen Ekintzaile Kooperatiban negozio ideiak testatzeko aukera izanen dute. Azkenik, PARI Europako proiektuaren bidez, eraldaketa digital eta ekologikoan ekimen estrategikoak bulkatuko dituzte, energia, mugikortasun jasangarria eta abeltzaintza sektoreetan kooperatibak garatuz.

Hezkuntza publikokoak lanuztea egitera deituta

Steilas, LAB, CCOO eta ELA sindikatuak eskualdez eskualdeko bi orduko lanuzteak egiten ari dira

SAKANA

Hezkuntza publikoan gehiengoak duten Steilas, LAB, CCOO eta ELA sindikatuak mobilizazio sorta egiten ari dira. Ikasturte honetan egindako hiru greben ondoren, eskualdeko txandakatu, bi orduko lanuzteak egingen dituzte asteazkenean. Sakanako hezkuntza publikoko langileak martxoaren 12an bi orduko lanuzteak egitera deitu dituzte. Eta, bide batez, egun horretan 09:00etatik 11:00etara Irurtzunen eta Altsasun egingo diren elkarretaratze eta batzarretan parte hartzera gonbidatu dituzte.

Azaldu dutenez, "Hezkuntza Departamentuari jakinarazi nahi diogu bere jarraitzearen nekatuta eta haserre gaudela", Sindikatuak gaineratu dutenez, gobernuak ez du asmorik negoziatzeko, "ez hezkuntza publikoak dituen beharren inguruan, ezta horretarako behar den inbertsioaren inguruan ere".

Martxoaren 8aren "esanahi borrokalariari" heldu dio Itaiak

Egunaren "zentzu iraultzailea berreskuratzeko" berebiziko garrantzia duela nabarmendu du

SAKANA

Emakume sozialisten antolamenduak, Itaiak, *matxismoaren aurrian, emakume langileok borrokara* leloa aukeratu du martxoaren 8rako. Itaiakoen gaztigatu dutenez, "egoera larria da, eta are larriagoa izan daiteke, ideia eta jarrera matxistei eta erreakzionarioei ateak ixten ez badizkiegu. Atzerakada ekonomikoak eta politikoak ezaugarrituriko testuinguru honetan, inoiz baino garrantzitsua da martxoaren 8an kaleak hartzea eta borrokatzea". Nabarmendu dutenez, "alderdi politikoek eta estatuko instituzioek egindako promesa faltsuen kontra, sozialismoaren aldarria oinarri izango duen emakume fronte ahalik eta zabalena erakiki behar dugu".

Fronte horren egitekoetako bat litzateke "matxismoaren gorakadaren kontra, ideia atzerakoiaren eta erreakzionarioen kontrako politizazio lana" egitea. Horretarako, "batetik, matxismoaren kontra erantzuteko ahalik eta emakume gehien batuko dituzten espazioak sortu behar ditugu. Eta, bestetik, ahalik eta pertsona gehienengan matxismoaren kon-

trako kontzientzia zabaltzea behar dugu". Beste egiteko bat da emakumeak "sozialismoaren aldeko borrokan lehen lehoan" egotea. Horretarako, Itaiak ezinbesteko jotzen du "emakume proletariatuaren aktibazio politikorako tresna eraginkorrak" sortzea. Eta "lehentasunezko zat" jo du "emakumeon aitortza politikoa ziurtatzeko kontzientziazio lana egitea".

Aipatu frontearen hirugarren egitekoa litzateke "emakumeok egunerokotasunean bizi ditugun zapalkuntza formen kontrako borroka proposamen estrategiko batekin" lotzea. "Emakumeon zapalkuntza ekonomikoarekin, kulturalarekin eta politikoarekin bukatuko duen gizarte eredu dugu helburu. Eta beraz, gaurdanik egin beharrekiko lan guztiak norabide horretan egin behar du ekarpena. Kapitalismoak betikotzen dituen zapalkuntzen kontra, matxismoaren aurkako borroka iraultza sozialistaren baitan kokatzea beharrezko hautua da".

Sakanako Itaiak Lakuntzako plazan larunbatean 12:00etan egingen den mobilizazioan parte hartzera deitu du.

*Solasaldiak
Lantegiak
Hitzaldiak*

LITERATURA -geraldiak 2025

Errezitaldia
HITZALDI-ERREZITALDIA

**IZENBURUA
LARRUAREN KODEA**

HIZLARIA
Miren Agur Meabe

TOKIA
IRURTZUNGO PIKUXARREN

EGUNA
Martxoak 13

ORDUA
18:30

Antolatzailea: **Mank**
Laguntzailea: Nafarroako Gobernua / Gobierno de Navarra



Kale garbigailu berria otsailaren hirugarren asteaz geroztik dago lanean.

Udalak 144.464 euroko balioa duten inbertsioak onartu ditu

Basolanak egiteko, Zelandiko frontoia konpontzera eta buruhandietara bideratuko da dirua

ALTSASU

Altsasuko Udalaren Osoko Bilkurak 77.279 euroko aurrekontua aldaketa onartu zuen. Diru hori aurten mendian bi inbertsio egitera bideratuko da. Alde batetik, Basoixin eta Balankalekun egin-dako landaketak mantentzeko bigarren garbiketa egingo da udan. Beste hiru lan ere aurreikusitako dira: Ulaiarren garbiketa, Dermaun itxiturak kendu eta San Pedroko zelaian sasi garbiketa. Beste aurrekontu aldaketa baten bidez Altsasuko Udalak 65.185 euro bideratuko ditu Zelandi pilotalekuaren teilatuko metakrilatoak eta sabai faltsua berritzeko.

Bestalde, festetan bi buruhandi berri izanen ditu Altsasuk. Udalaren aurtengo aurrekontuan 5.000 euro zeuden, eta udalak orain, aurrekontu aldaketa bidez, beste 2.000 euro gehitu ditu. Buruhandien eramaile taldearen

eskaerari jarraituz, udalak herriko kulturarekin zerikusia duten buruhandi eskuratuko ditu: Zaldiko itxurako asto bat eta txistulari bat. Javier Ollo Martinez alkateak aurreratu duenez, heldu den urtean beste hiru buruhandi erosiko ditu udalak, hirurek ere ihotearekin zerikusia izanen dute.

Horretaz aparte, udalak kale garbigailu berria erosi du, eta otsaileko hirugarren asteaz geroztik udal langileak hura erabiltzen ari dira kale garbiketa egiteko. Garbigailu berria Bobinados Labrit enpresari erosi dio Altsasuko Udalak 71.958 eurotan (BEZik gabe). Javier Ollo Martinez alkateak azaldu duenez, "aurreko makina, 2012. urtean erosi zena, mantenduko dugu. Batez ere egun zehatzetan bi makinak lanean egoteko, esate baterako, festa egunetan, orduan gehiago zikintzen delako".

Asfaltatze lanak eginak

Nafarroako Gobernuak asfaltatze lanak egin ditu Bakaikun eta Iturmendin. Bi herrietatik pasatzen den NA-2410 errepidean hondatuta zeuden zoru zatiak berritu ditu Bideberrialde eta Estafeta kaleetan. Herri guneetako lanez aparte autobiarako eta Iturmendiko bidegurutzeko zoladura zatiak ere konpondu ditu foru administrazioak.



Lanen bigarren fasean eginen den Fernando Urkia kalearen zatia.

Udalak bi lanetarako laguntzak eskatuko ditu

Udaletxeko erdiko solairua eraldatzeko, Fernando Urkia kaleko lanen bigarren faserako eta kultur etxea janzteko ere eskatu du. Bestalde, kiroldegiko klimatizagailua aldatu du

ARBIZU

Nafarroako Gobernuak Tokiko Azpiegitura Planaren bidez herrietan egiten diren lanak diruz laguntzen ditu. Arbizuko Udalak plan horretara bi lan aurkeztuko dituela jakinarazi du Francisco Javier Razkin Flores alkateak. Alde batetik, udaletxeko erdiko solairua eraldatzea. Razkinek azaldu duenez, "artxiboa txiki gelditu da, eta egoki jartzeko erdiko solairua eraldatu beharra dago. Aurreko dirulaguntza deialdira aurkeztu genuen obra hori. Ez ziguten eman eta orain berriro aurkeztuko dugu".

Deialdi horretara Arbizuko Udalak aurkeztuko duen beste lana da Fernando Urkia kaleko zati baten sareen eta zoladura berritzeko. "Gauzak ongi, martxoan hasiko da Fernando Urkia kaleko lanen lehen fasea. Gelditzen den kale zatia da dirulaguntza deialdira aurkeztuko duguna", azaldu du Razkinek. Kale horretako 45 eta 32 zenbakietatik 22 eta 23 zenbakietarai-

noko zatia berrituko da kalea, Lizarragabengoarako bidegurutze paretik Nagusia kalearen bidegurutzeraino. Lanak Lacunza Hermanos enpresak egingen ditu eta horien truke 588.801,37 euro (BEZ barne) jasoko ditu. Enpresak lanak egiteko sei hilabete izanen ditu.

Bestalde, Arbizuko Udala dirulaguntza baten ebazpenaren zain dago. "Kultur etxea janzteko, eszenatoki txiki egin, proiektorea, aulkiak, armairuak eta beste jartzeko dirulaguntza eskatu genuen Cederna-Garalurren bidez", argitu du Razkinek. Eraikinaren barne araudia onartuta, jantzi bitartean taldeak erabiltzen ari direla azaldu du: "joskintza eta pintura taldeak han aritzen

dira, Arbizu Kantuzekoak ere, eta liburu aurkezpen eta hala-koetarako ere erabili izan da".

Razkinek gaineratu duenez, gabonetako oporrak baliatu dituzte igerilekuan klimatizagailu berria jartzeko. "Ikastarorik ez zegoen garaia baliatu genuen obra egiteko". Aurreko klimatizagailua eraikina txikiagoa zenean jarri zen. Kiroldegia handitu zuten eta makinak ez zuen bere funtzioa ongi betetzen. Makina aldatuz, igerilekuen guneko egungo baldintza termikoak hobetu ditu udalak, aurrekoarekin ez baitziren lortzen horrelako espazioetarako behar diren tenperatura eta hezetasun baliok, sistemaren energia eraginkortasuna hobetu da eta, bide batez, foru legedia betetzen da. Lanek 135.000 euroko aurrekontua izan dute. EH Bilduk Nafarroako Gobernuaren 2024ko aurrekontuari aurkeztutako zuzenketa baten bidez udalak lan horretarako 120.000 euro jasoko zituen.

"GAUZAK ONGI, MARTXOAN HASIKO DA FERNANDO URKIA KALEKO LANEN LEHEN FASEA"

ESKELA



**Jose Ramon
Zabala Igoa**

Ta Kantauritik harago zerbait balego
besarkatuko gara berriro
Besarkada bat familiarendako

Nerearen lagunak

ESKELA



**Jose Ramon
Zabala Igoa**

"Egiaren bila zuk ibili duzun bidea
urratzen jarraituko dugu"

Etxarri Aranazko Sortu

OROIGARRIA



**Aritz
Jauregi Albarracin**

III. urteurrena

Gure bihotzetan betiko, maitia

Zure familia

OROIGARRIA



**Gorka
Larrea Ondarra**

XIII. urteurrena



Gorka, ez dugu inoiz zure hutsunea gaindituko
Denborak ez du dena sendatzen
Maite zaitugu eta ez zaitugu ahaztuko

Eskerrik asko lagunei urte hauetan
gogoan izateagatik

Aita, ama, Iker eta Erkuden

OROIGARRIA

**Gorka
Larrea Ondarra**

XIII. urteurrena
Martxoaren 3an

Izar batek argitzen gaitu gauean
gurekin egon ez arren
beti zaitugu gogoan
gure bihotzetan
izango zara
bizi garen artean

Zure lagunak

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

SALGAI

Olaztin etxe adosatua salgai: 70m², sukaldea, komuna, egongela eta hiru logela ditu. Informazio gehiago nahi baduzu, deitu 683 346 308 telefonora.

IKASTAROAK

60 urtetik gorako altsasuarrendako tailerrak: Baikortasunez bizi, idazketa sortzailea, zure ongizatea elikatu, sasoioko egoteko bi tailer. Ikastaroak doakoak dira baina izena eman behar da, informazioa eta izen emateak Altsasuko udalerean.

Gaitasun digital ikastaroak Olaztin: Oinarritzko gaitasun digital pertsonalak martxoaren 10etik 21era, administrazio elektronikari buruzko ikastaroa martxoaren 17tik 21era eta Android telefono mugikorra erabiltzen ikasteko ikastaroa martxoaren 10etik 14ra. Informazio gehiago 948 012 012 telefonora deituz edota SNEcompetencias-

digitales@nasertic.es edo *aventuradigital@navarra.es* posta elektronikotara idatziz.

OHARRAK

Olaztin Udaren Euskaraz kanpainaren izen emateko epea zabalik: Gargarrilaren 23tik garilaren 18ra izanen da, Lehen hezkuntzako haurrentzat. Informazio gehiago Olaztin udalerean edota 948 012 012 telefonora deituz.

Sakana Harrera Hara-nak apirilaren 6ko elkartasun azokarako bilketa: Martxoaren 28ra arte etxean dituzun eta egoera onean dauden arropak, jostailuak, ontziak etab. ostiraletan, goizeko 11:00etatik 13:00etara Altsasuko garai bateko Sociedad Deportiva tabernara eraman ditzakezu.

Etxarri Aranazko irakurle taldearen oharra: *Bernoia* irakurriko dugu eta martxoak 13an liburutegian elkartuko gara, Juan Luis Larraza bertan izango da eta Irekia izango da.

Iturmendin mintzakide taldea sortu dute: Oste-gun arratsaldetan, kafe-tegian bildu eta euskaraz hitz egiteko.

Su hartu zuen Arberoa ikastola laguntzeko kanpaina: Kalte material izugarriak izan zituzten sutearen ondorioz eta bertako familiek sostengu kanpaina martxan jarri dute, on-line denda honetan: *arberoadenda.wixsite.com/ikastola*, diru ekarpenak egiteko kontu zenbaki honetan: FR76 1005 7195 2500 0202 0160 520 edota materiala eman nahi duenak haiekin harremanetan jarri daiteke *arberoakoi-kastola@gmail.com*.

Iturmendiko osasun etxeak telefono zenbaki berria du: Bakaikuko, Iturmendiko eta Urdiaingo udalek jakitera eman dutenez. Osasun arreta eskatzeko 948 633 038 zenbakira deitu behar da hemendik aurrera.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburak.eus

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Astearteko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXEK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.

- Iragarki Guaixe paperean eta *guaixe.eus*-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko astearteko 13:00ra arte.

JAIOTZAK

- **Nare Berdud Ondarra**, otsailaren 25ean Altsasun.

HERIOTZAK

- **Jose Ramon Zabala Igoa**, martxoaren 1ean Etxarri Aranatzen.

GUAIXEN ARGITARATZEA NAHI BADUZU:

JAIOTZEN, EZKONTZEN ETA HERIOTZEN BERRI EMATEKO

DEITU 948 564 275, IDATZI *ADMIN@GUAIXE.EUS*-ERA EDOTA

WHATSAPP BIDEZ 618 882 675 ZENBAKIRA IDATZ IEZAGUZU

ASTEARTEKO 13:00AK BAINO LEHEN.

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70 € prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Asteazkena goizeko 12:00ak baino lehen.

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70
@Grupolrache
Grupolrache
www.tanatoriosirache.es

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI
ASTEARTEKO 13:00AK BAINO LEHEN.
Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 7

EUSKARAZ

ZIORDIA Ipuin kontalaria.

M8 Babak eltzetik ateratzen ixabel Agirresaroberen haurrendako ipuin kontakizun saioa, Martxoak 8 Emakumearen nazioarteko egunaren harira Sakanako Mankomunitateko Berdintasun zerbitzuak antolatutako egitarauaren barruan.
17:00etan, liburutegian.

ALTSASU Pilota

Ados Pilotaren Binakako Txapelketa: Aranburu – R. L. Mujika / Arrieta – Galeano; R. Infante – Orbegozo / Iturriaga – Mendiburu. Sarrerak: 5 euro.
17:30ean, Burunda frontoian.

IRURTZUN Liburuaren aurkezpena.

M8 Cicatriz Virginia Alba idazlearen liburuaren aurkezpena, Emakume Jardunaldiak Martxoak 8 Emakumearen nazioarteko egunaren harira antolatutako egitarauaren barruan.
18:00etan, liburutegian.

ALTSASU Gazte agenda.

M8 Photocall eta pikoteoa (1,5 euro), Martxoak 8aren harira.
18:00etan, Intxostiapuntan.

EUSKARAZ

LAKUNTZA Poesia errezitaldi musikatua.

M8 Rifqa: Honengatik egiten dugu dantza Eider Beobide, Peru Galbete eta Xalba Ramirezen poesia errezitaldi musikatua, Rifqa Mohamed El-Kurd idazlearen poema liburuan oinarrituta, Literatura Geraldia Sakanako Mankomunitateak antolatutako egitarauaren barruan.
18:30ean, liburutegian.

ALTSASU Manifestazioa

M8 Faxismoaren kontra, ausardia eta aliantza feministak lelopean martxoaren 8ko Emakumearen nazioarteko eguneko Mugimendu Feministaren elkarretaratzea. Sakana mailako manifestazioa.

19:00etan, Foru plazatik lortia zabalgunera.

LARUNBATA 8

OLATZAGUTIA Mendi irteera.

Sakanako Mendizaleak taldearen mendi irteera: Kaseda – San Pedro – Kaseda; 11,25 kilometroko ibilbidea; aldapan gora 476 metro, gain behera 476 metro.
07:00etan, autobus geltokitik.

UHARTE ARAKIL Kontzentrazioa.

M8 Faxismoaren kontra, ausardia eta aliantza feministak lelopean martxoaren 8ko Emakumearen nazioarteko eguneko Mugimendu Feministaren elkarretaratzea.
12:00etan, plazan.

LAKUNTZA Mobilizazioa.

M8 Matxismoaren aurrean, emakume langileok borrokara! lelopean martxoaren 8ko Emakumearen nazioarteko eguneko Itaiaren mobilizazioa.
12:00etan, plazan.

ARBIZU Kontzentrazioa.

M8 Faxismoaren kontra, ausardia eta aliantza feministak lelopean martxoaren 8ko Emakumearen nazioarteko eguneko Mugimendu Feministaren elkarretaratzea.
12:00etan, plazan

IRURTZUN Manifestazioa

M8 Faxismoaren kontra, ausardia eta aliantza feministak lelopean martxoaren 8ko Emakumearen nazioarteko eguneko Mugimendu Feministaren manifestazioa.
12:30ean, Foru plazan.

ETXARRI ARANATZ Kontzentrazioa.

M8 Faxismoaren kontra, ausardia eta aliantza feministak lelopean martxoaren 8ko Emakumearen nazioarteko eguneko Mugimendu Feministaren elkarretaratzea.
12:30ean, plazan

URDIIN Kontzentrazioa

M8 Faxismoaren kontra, ausardia eta aliantza feministak lelopean martxoaren 8ko Emakumearen nazioarteko eguneko Mugimendu Feministaren elkarretaratzea.
12:30ean, Herrienetxean.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

Polican

Igandea 9 17:00

El secreto del orfebre

Igandea 9 19:30

Astelehena 10 19:00

Lee Miller

Osteguna 13 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO TXIKIAN

El secreto del orfebre

Igandea 9 17:00

Parthenope

Osteguna 13 19:00

ITURMENDI Kontzentrazioa

M8 Faxismoaren kontra, ausardia eta aliantza feministak lelopean martxoaren 8ko Emakumearen nazioarteko eguneko Mugimendu Feministaren elkarretaratzea.
13:00etan, plazan.

IGANDEA 9

ETXARRI ARANATZ Futbola.

Sakanako Benjaminen Areto Futbol - Futbol 8 Topaketen egutegia. **Frontoian.**
10:00 Etxarri Aranatz KE - Arbizu.
11:00 Altsasu KE - Aralar Mendi.
12:00 Altsasu SD - Sutegi.

ETXARRI ARANATZ Ginkana.

M8 Emakumeak ahalduntzea, berdintasuna ginkana, 7 eta 12 urte bitarteko gaztetxoei bideratuta. Martxok 8 Emakumearen nazioarteko egunaren harira Etxarri Aranazko Udalak antolatuta.
17:30ean, plazan.

IRURTZUN Bakarriketa.

M8 Beatriz Egizabalen Magma mía bakarriketa feminista saioa, Emakume Jardunaldiak Martxoak 8 Emakumearen nazioarteko egunaren harira antolatutako egitarauaren barruan.
19:00etan, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Dokumentala.

M8 Hijos de la Nakba film dokumentalaren emanaldia. Martxoak 8 Emakumearen nazioarteko egunaren harira udalak antolatuta.
19:00etan, kultur etxean.



OLATZAGUTIA Bubisher proiektuaren hamabosgarren urteurrenaren 'Hegoak Hegan' erakusketa.
Martxoaren 21era arte.
Liburutegian.

ALTSASU Inauteriei buruzko ikastetxeen eta Maite Martinezen argazkien erakusketa, Altsasuko Herri Ihauterietako batzordeak antolatuta. Otsailaren 26tik martxoaren 7ra. Iortia kultur guneko erakusketa aretoan.



IORTIA KULTUR GUNEA

ALTSASU Luminizenteak. Emakumeen aurkako indarkeria ikusezinak, eta erresilientzia historia zenbait Igone Mariezkurrenaren eta Irantzu Pastorrenen proiektua.
Martxoaren 8aren harira Berdintasun eta Kultura zerbitzuek elkarlanean antolatuta. Martxoaren 12tik 31ra. Iortia kultur gunean.

ASTELEHENA 10

ALTSASU Elkarretaratzea.

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.
12:00etan, udaletxearen aurrean.

ASTEARTEA 11

ALTSASU Kontzertua.

M8 Altsasuko Musika eta Dantza Eskolaren Berdintasunaren aldeko kontzertua, Martxoak 8 Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira eskolak antolatuta Berdintasun zerbitzuaren egitarauaren barruan.
17:30ean, Iortia kultur gunean.

OSTEGUNA 13

EUSKARAZ

IRURTZUN Hitzaldi errezitaldia.

M8 Larruaren kodea Miren Agur Meaberen hitzaldi errezitaldia, Literatura Geraldia Sakanako Mankomunitateak antolatutako egitarauaren barruan.
18:30ean, Pikuxar elkartean.

EUSKARAZ

LAKUNTZA Ipuin kontalaria.

Txanogorritxo ere neska sortu omen zen Ainara Unanuaren ipuin kontakizuna. 5 urtetik aurrerako haurrei bideratuta.
18:30ean, liburutegian.

EUSKARAZ

ARBIZU Literatur solasaldia.

M8 Hetero liburuaren inguruko solasaldia Uxue Alberdi idazlearekin. Martxoak 8 Emakumearen nazioarteko egunaren harira udalak antolatuta.
18:30ean, liburutegian.

OSTIRALA 14

ALTSASU Hitzaldi tailerra.

M8 Pornografia eta heziketa sexuala hitzaldi-tailerra, Berhezi Aholkularitzaren eskutik. Martxoak 8 Emakumearen nazioarteko egunaren harira Gazteria zerbitzuak antolatuta Berdintasun zerbitzuaren egitarauaren barruan.
18:00etan, Iortia kultur gunean.

EUSKARAZ

ETXARRI ARANATZ Bakarriketa.

Antton Telleriaren Ni ni ni bakarriketaren emanaldia, Irizikloaren barruan.
19:00etan, kultur etxean.



- Kristal aldaketak
- Lanta berritzeak
- Adeitasun autoa doan
- Barruko eta kanpoko garbiketa

Akaborro II industrialdea • IRURTZUN • 680 859 938 • 948 500 166 • chapigo@gmail.com

Izan giltzarri!



Hiriberri Ihoteak

**Aupa Hiriberri!
Izan giltzarri!**



**guaixe.eus/
kideak**





Sakanako XVII. Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Sariako txapeldunak, Amaia Gerrikagoitia kirol teknikaria eta Lasa Kirolakeko ordezkariak.

Sakanako herri lasterketetan, onenak

ATLETISMOA Pandemia ondoren lehenengoz banatu ziren Sakanako Mankomunitateak antolatutako Sakanako XVII. Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Sariak. Sakanako herri lasterketak sustatzen jarraitzeko prest azaldu ziren korrikalariak eta antolatzaileak

Maidor Betelu Ganboa SAKANA

Lasa Kirolak denda korrikalari sakandarren bilgune izan zen otsailaren 26an, XVIII. Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Sariaketa hartu baitzuen. "Pandemia ondotik sariaketa antolatzen dugun lehenengo aldia da hau. Hainbat arrazoiengatik orain arte ezin da posible izan, eta oso kontentu gaude berriro hemen egoteagatik" azaldu zuen Sakanako Mankomunitateko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitia. "Urteak pasatu dira, eta belaunaldi aldaketa nabaritzen dugu. Lehen korrikalari sarituek seme-alaba koxkorak zituzten, eta oraingoek, aldiz, haur txikiak" gaineratu zuen Lasa Kirolak-eko Mari Carmen Lasak.

Sakanako lasterketen alde

2024an jokaturako lau lasterketek puntuatzen zuten: Urdiainen jokaturako XVIII. Aitzkibil elkartasun krosak, Ziordiko XI. Lasterketa solidarioak, Ergoienako XVIII. Birak eta Altsasuko

Zubeztia Elkartearen XLIII. Lasterketak. Lasterketa bakoitzeko 10 korrikalari onenek puntuatzen zuten, eta txapeldunak Erkuden San Martin Gonzalez eta Ekhi Congil Mendiola etxarriarrak izan ziren, Noemi Cordero Diaz eta Aritz Etxeberria Bengoetxea bigarrenak, eta Maite Zabaleta Gomez eta Ivan Sobredo "Triki" hirugarrenak. Guztiek Lasa Kirolak dendan kirol materialean gastatzeko bonoa jaso zuten opari. Horretaz gain, Erkuden San Martinek beste sari bat jaso zuen, kopako lau lasterketetan parte hartzeagatik. Guztiek eskertuta jaso zuten saria, eta Sakanako lasterketa herrikoiak sustatzearen garrantzia nabarmendu zuten.

"LASTERKETA HAUEK HERRIEI BIZIA EMATEN DIETE, ETA SUSTATZEN JARRAITUKO DUGU" AMAIA GERRIKAGOITIA

Ildo horretan, 2025ean Sakanako Atletismo Kopa antolatze-ko asmoa berretsi zuen Amaia Gerrikagoitia. "2025eko herri lasterketen datak konfirmatzen ari dira egunotan, eta Mankomunitateak aurrez aurre kopako antolatze-ko asmoa dugu. Lasterketa hauek bultzatu nahi ditugu, eta korrikalari sakandarrek bertan parte hartzea sustatu nahi dugu".

Azkenaldian herriko probetako parte hartzea jaisten ari da, "ez bakarrik atletismoko lasterketetan; duatloian eta triatloian ere hala gertatzen ari da. Ez dakit izango den beste kirol batzuk ugaritu direlako edo jende askok, gazteek bereziki, gimnasioetara jotzen dutelako eta tendentziak aldatu direlako, baina horrela da. Dena den, oraindik ere herrietako atletismo proba hauetan partaidetza polita dago, proba horiek herriei bizia ematen diete, eta antolatzen jarraitu beharra dago. Mank-etik, jakina probak sustatzen jarraituko dugu".



"Ergoienako Biraren arantza dut. Ea aurren..."

EKHI CONGIL MENDIOLA
KORRIKALARIA

Lehendabiziko aldia da Sakanako Atletismo Kopa irabazten duzula. 2022an hasi nintzen korrika. Beraz, lehenengo aldia da kopan parte hartu eta, gainera, kopa irabazi dudana. Eskertuta jaso dut saria. Politak dira, herrikoiak.

Sakanako probetan parte hartzea gustuko al duzu? Beti esaten dut etxeko probek presio berezia dutela, baina politak dira, herrikoiak.

Sakanako lasterketen parte hartzeak behera egin du. Zergatik dela uste duzu? Lasterketa handietara joateko tendentzia bat badago: Valentziara, Donostiara... Nik halakoak egin izan ditut, masiboak direnak, eta ez dute txikiak duten xarma hori, eta nahiz eta zirkuitu homologatua izan, korrikalaria gutxiago zaintzen dute. Iaz, Dantzaleku Sakanatik Bargagaingo mendi lasterketa antolatu genuen, baina ez zen atera, ez zegoelako partaidetza nahikorik. Aldiz, ferietako Onddo Lasterketa proba ez lehiakorren sekulako parte hartzea izan zen. Agian formatua berriro beharra dago, edo ez dakit zer den, baina badago zerbait.

Beraz, bertako lasterketak mantentzearen alde. Jakina! Ni iaz Ergoienako Bira egiteko arantzarekin geratu nintzen, baina Beriaingo Km Bertikalarekin batera zen. Ea aurren posible den.

"Sakanakoetan parte hartzea gustatzen zait"

ERKUDEN SAN MARTIN GONZALEZ
KORRIKALARIA

Sari bikoitza lortu duzu. Batetik, Sakanako Atletismo Kopa irabazi duzu, eta, bestetik, saria jaso duzu koparako puntuatzen zuten lau lasterketetan parte hartzeagatik. Kontentu egongo zara...

Bai, oso pozik. Sakanako lasterketetan parte hartzea gustatzen zait. Gainera, azken urteetan jende gutxiago gerturatzen ari da, eta babestu behar ditugu

Zergatik dela uste duzu? Ez dut argi, korrika egiten dugunok inguruan ibiltzen garelako. Ez dakit zergatik. **Agian korrikalariak proba ezagunetara joatea nahiago dutelako?**

Ba ez dakit, agian Sakanako herri lasterketak distantzia motzekoak direlako, edo datak direla... arrazoi asko egon daitezke. Baina niri gustatzen zaizkit, eta nik euren aldeko apustua egiten dut. Ahal dudanean joaten naiz, eta gustura gainera.

Horrenbeste zapatila eta kirol material gastatzen duzue, Sakanako Atletismo Kopako saria, Lasa Kirolak-en kirol materialean gastatzeko txartela, ongi etorriko zaizue.

Primeran datorkigu, pila bat eskertzen dugu. **Aurtengo edizioan, 2025ekoan, parte hartzeko prest?**

Bai, zalantzarik gabe!

Iskizakoak primeran Banakako Txapelketan

GIMNASIA ERRITMIKOA Banakako Nafarroako Gimnasia Erritmikoko Txapelketaren lehen fasean lan ederra egin zuen Iskizak. Tartean, Naroa Diaz eta Nagore Erdozia Espainiako Txapelketetara sailkatu ziren. Bigarren fasea Altsasun hartuko du, apirilaren 5ean

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Aurreko larunbatean Banakako Nafarroako Gimnasia Erritmikoko Txapelketaren lehenengo fasea jokatu zen Buztintxurin, eta bertan Iskiza Sakanako hamaika gimnastek parte hartu zuten. Egindako lanarekin pozik daude klubean.

Lan ederra

Iskizakoen Buztintxuriko emaitzak erreparatuz, laugarren mailari dagokionez, 2013 infantil mailan Maddi Lorente laugarren eta Sofia de Sousa seigarren izan ziren; 2012 infantil mailan Sarai Alonso hirugarren eta Onea Etxarte bosgarren; eta 2008/2009 jubeniletan Nerea Palomino laugarren, Maria Jose Zapirain bosgarren eta Haizea Perez seigarren.

Hirugarren mailan 2008/2009 jubenilen mailan Ainhoa Marijuan zazpigarren sailkatu zen eta 2006/2007 jubenilen kategorian Beatriz de Sousa hirugarren.



Banakakoa prestatzeko otsailaren 23an Altsasun egin zuten erakustaldia. ISKIZA

Azkenik, bigarren mailako 2006 kategorian Naroa Diaz laugarren izan zen, eta Nagore Erdozia bosgarren. Biek apirilaren 8tik 13ra ospatuko den Espainiako Banakako Txapelketetarako txartela lortu dute.

Bigarren fasea, Altsasun

Olaia Agirre Iskizako ardura-dunak balorazio ezin hobea egin du. "Oso pozik gaude gure gimnastek tapiz gainean izan zuten jarrerarekin. Oso ariketa onak egin zituzten, orain arte egindako lana bikain defendatuz. Urteko lehen txapelketa izanda, urduritasuna nabaria zen, baina nahiz eta horrek akatsen bat ekarri, haiei oso jarrera onarekin egin zieten aurre, lana oso ondo defendatuz".

Hurrengo asteetan ariketak eta koreografiak fintzen ibiliko dira, Nafarroako Kirol Jokoetako Banakako Gimnasia Erritmikoko bigarren fasea Altsasun jokatuko baita, apirilaren 5ean. "Bigarren fasean gure mailarik onena eman nahi dugu, are gehiago etxean jokatzen dugula kontuan hartuta". Horretaz gain, ekitaldia prestatzeko antolakuntza lan handia dute aurretik.

"APIRILAREN 5EAN, ALTSASUN, GURE MAILARIK ONENA EMAN NAHI DUGU"
OLAIA AGIRRE



Aimar Tadeo Arkauz. EUSKADI FUNDAZIOA

TXIRRINDULARITZA

Ereñoko mendiko saria Aimar Tadeorendako

XXII. Ereñoko Udala Sarian (124 km) hasieratik etengabeko erasoak izan ziren, eta saltsan eroso murgildu zen Aimar Tadeo lakuntzarra (Euskadi Fundazioa). Gorka Corresen (Rural Kutxa-Alea) irabazitako proban Tadeo laugarren sartu zen, Iker Gomez (Finisher) 23. eta Mikel Uncilla (Rural Kutxa-Alea) 62. Tadeok mendiko saria irabazi zuen eta Euskadi Fundazioa talde onena izan zen.

Bestalde, emakumezkoen Espainiako Koparako baliagarria zen Nojako lasterketan eliteetan Nahia Imaz hamabigarren sailkatu zen; juniorretan Ane Berastegi 14., Ane Beltran 23. eta Siets Goikoetxea 77.; eta kade-tetan Eider Mazkieran 67.



OSASUNA FUNDAZIOA

Osasunakoen bisita Etxarrira

FUTBOLA Osasuna talde nagusiko Nora Sarriegi, Asier Osambela, Jon Moncayola eta Irati Igoa futbolariak Osasuna Fundazioko Etxarri Aranazko futbol eskola bisitatu zuten. Ekitaldian, Sakanako futbolari txikienekin argazkiak atera zituzten eta

etorkizuneko futbolarien galderak erantzun zituzten. Ekitaldia berezia izan zen, bereziki, Irati Igoa Sesma etxarriarrendako. Aurten debutatu du Osasuna talde nagusian, modu ezin hobean, eta Josu Dominguezekin ezinbesteko jokalarietako batean bilakatzen ari da.



NAFARROAKO GOBERNUA

Gobernuko kirol saria, Altsasun

Nafarroako Gobernuaren 2024ko Kirol Golardeotako bat Altsasura iritsi da. Altsasuko Udalak udal onenaren saria jaso du, "kirola eta osasuna modu integralean lantzeko izan duen ikuspegi eredugarriarengatik". Zahartze aktiborako eta haurren obesitatearen kontrako programak daude tartean. Sara Salazar kirol teknikariak "ariketa fisikoak osasunean duen onura" berretsi du.

EMAKUME PREFERENTEA

16. JARDUNALDIKO EMAITZA
Gares - Altsasu 0-0

SAILKAPENA
EMAKUMEEN PREFERENTEA . 1. FASEA

1 Altsasu 42
2 Gazte Berriak 39

HURRENGOA

MARTXOAK 8, LARUNBATA
12:30 Peña Sport - Altsasu (Tafalla)

Atzeratutako partidan, puntu bat
Altsasuk atzeratutako partida jokatu zuen
Garesen, eta puntua ekarri zuen bertatik.

GIZON ERREGIONALA

22. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Altsasu - Beti Onak B 3-0

Etxarri Aranatz - Amaya (atzeratuta)
Universidad de Nav. B - Lagun Artea 2-3

SAILKAPENA
ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1 Altsasu 64
3 Etxarri Aranatz 48
7 Lagun Artea 35

HURRENGO JARDUNALDIA

MARTXOAK 8, LARUNBATA
10:00 Lagun A - Arga Ibaia (Zelai Berr)

16:00 Lagunak - Altsasu (Barañain)

18:15 San Jorge - Etxarri (San Jorge)

Altsasu, partida lehiatua Zelai Berrin
Altsasuk bere bidetik atera gabe segitzen
du. Beti Onaken kontra garaipen sendoa
lortu zuen, eta Lagunakekin asmo bera du.
Ligan partidarik ez galtzea du xede.

Etxarri Aranatz, ligara buelta
Nafarroako kopako finalera sailkatu eta
gero, Etxarrik bigarren den San Jorge
arerio zuzena mendean hartu nahi du.

Lagun Arteak Arga Ibaia hartuko du
Aurreko asteko garaipenak airea eman dio
Lagun Arteari eta Arga Ibaiairen kontra
irabazi nahi du, puntuak bildu eta goiko
postuetan sartu ahal izateko.

ARETO FUTBOLA Aralar
Mendiren garaipen
sendoa

Aralar Mendi hirugarren mailako ligara ezin
hobe itzuli da. Uhartearrek 7-3 irabazi zioten
Burlatari. Gaur Beteluren kontra jokatu
dute, 19:30ean, Betelun. Lehen
autonomikoan ez zen jardunaldirik jokatu.
Atzo, osteguna, Altsasuk Tafa hartu zuen
Zelandin. Arbizu liderrak Subiza du aurkari
bihar, 18:00etan, Eskirozen. Emakumeen
lehen seniorreko bigarren fasean Xotak 2-5
galdu zuen Azkoienekin. Txantrearen
kontrako partida apirilera atzeratu du.

Ezkurdia eta Rezusta, sari potoloaren bila

PILOTA Binakako Pilota Txapelketako finalerdietako ligaxkako lehen jardunaldiko irabazleek, Ezkurdia-Rezustak eta Artola-Mariezkurrenak, finaleko txartel preziatua lortzea dute jokoan larunbatean Labriten. "Ilusionatuta eta gogotsu" daude

Maidar Betelu Ganboa ARBIZU
Txapelketa batean partida guztiak dira garrantzitsuak. Baina partida batzuk ezinbestekoak dira. Larunbatean Ezkurdia-Rezustak eta Artola-Mariezkurrenak jokatu dutena bezala. Bi bikoteak Binakako Pilota Txapelketako finalerdietako ligaxkako lehen jardunaldia irabaztetik datoz, eta asko dute jokoan: martxoaren 30ean Nafarroa Arenan jokatu den finalerako txartela, finalerako pasabidea, hain zuzen ere.

Asteartean egindako material aukeraketan ikusmina agerikoa zen. Dirua nahiko paretsu aterako da Labriten, 100-80ra, Artolaren eta Mariezkurrenaren alde. Ezkurdia eta Rezusta beteranoak "hemen gaude" esateko gogoia dute, Aspe enpresatik finalerdietara sailkatu diren bikote bakarra izanda, are gehiago. Asko dute jokoan, eurak finalean egoteak Aspe enpresa bera salbatuko baitu.



Rezusta eta Ezkurdia, material aukeraketan. JON URRIZA

Gogorra eta polita, aldi berean
Ezkurdiak eta Rezustak argi dute partida zail baten aurrean daudela. "Larunbatekoa partida oso gogorra izango da, baina polita aldi berean. Artolak eta Mariezkurrenak bikote indartsua

osatzen dute, potentea; txapelketa hasieratik ikusi genuen potentzial handia dutela. Oso zaila da eurak irabaztea, baina aurretik egin izan dugu, eta horretara heltzen gara; horrek konfiantza eta lasaitasuna ema-

ten digu. Ilusionatuta gaude, oso gogotsu" azaldu zuen Ezkurdia material aukeraketan.

Baikokoek hitz ederrak izan zituzten Ezkurdia eta Rezusta-rendako. "Bikote gogorra osatzen dute. Ligaxkako lehenak izan ziren, eta larunbatekoa oso zaila izango da. Hala ere, sasoi onean gaude, konfiantzarekin" aipatu zuen Mariezkurrenak.

Lehertzero egongo den Labriteko partida irabazten duen bikoa zuzenean sailkatuko da finalerako, eta galtzaileak beste aukera bat izango du finalerdietako ligaxkako hirugarren jardunaldiko partidan.

Finalerdietako beste partida lehen jardunaldiko galtzaileek, Laso-Iztuetak eta Peña-Albisuk, jokatu dute, igandean, Astelehen. Galtzailea finaletik kanpo geratuko da.

Aitor Saralegi, finalera

Aitor Saralegi irurtzundarra 19 urtez azpiko Banakako Urrezko Aizkolari Txapelketako finalera sailkatu da, Julen Urrutia mendean hartuta. Martxoaren 16ko finalean Aritz Oiarbide, Jon Erdozia eta Jokin Larrieta izango ditu aurkari.

LABURREAN

Djiby Dioufen debuta Osasunako A jubenilean



Djiby Diouf futbol jokalaria lakuntzarrak Osasunako A jubenilen taldean debutatu du. Djiby Lakuntzako Lagun Artea futbol taldeko futbolari izan zen infantil kategorian despeditu arte, kadete mailatik Osasunako jokalaria baita. Djiby erdilaria da, jokalaria azkarra eta aparta, eta beste aurrera pauso bat eman du, jubenilen A taldera egin baitu salto.



ETXARRI ARANATZ KIROL ELKARTEA

Etxarri, kopako finalera

FUTBOLA Etxarri Aranatz futbol taldeak kopako finalerdia jokatu zuen larunbatean Ziraukiren kontra. Makina bat etxarriar hurbildu ziren Ziraukira, batzuk autobusez, taldea animatzeko. Lehia estua izan zen. 26. minutuan Mattin Altzelaik Etxarri aurreratu zuen,

eta bukaera aldera, 83. minutuan, Oinatz Carreñoren bigarren gola iritsi zen. 92. minutuan Ziraukik gola sartu zuen, baina beranduegi zen. Apirilaren 17an Etxarrik kopako final handia jokatu du Carcastilloko Larrateren kontra, oraindik zehaztu ez den tokian.



Miren Agur Meabe idazlea artxiboko irudi batean. ARTXIBOA

"Argitaratu gabeko poemak sartuko ditut"

MIREN AGUR MEABE IDAZLEA

'Larruaren kodea' hitzaldi-errezitaldia egingen du martxoaren 13an, osteguna, Pikuxarren, Literatura Geraldia egitasmoaren barruan

Eneida C. M. eta E. R. B. IRURTZUN

Euskaraz irakurtzeko ohitura eta zaletasuna zabaltzeko, herriarren euskarazko kultur kontsumoa eta euskal liburugintza indartzeko, liburutegi publikoen erabilera bultzatzeko eta esperientzia literarioak konpartitzeko helburuarekin Sakanako Mankomunitateak, Baztango Udalarekin, Bortziritako Euskara Mankomunitatearekin eta Nafarroako Iparaldeko Euskara Mankomunitatearekin batera Literatura Geraldia egitasmoa antolatu du, otsailean hasi eta ekainera arte. Sakanan hiru hitzordu daude; lehenengoa, gaur, martxoak 7, *Rifqa: Honengatik egiten dugu dantza* poesia erreztaldi musikatu izanen da, 18:30ean, Lakuntzako liburutegian, eta hurrengoa datorren ostegunean, martxoaren 13an, osteguna, 18:30ean, izanen da: Miren Agur Meabe idazlearen *Larruaren kodea* hitzaldi-errezitaldia, Irurtzango Pikuxarren.

Nondik dator 'Larruaren kodea' izenburua?

Hala iragarrita dago, baina egia esan behar badut, emanaldi honi begira hitzaldia errepasatzen hasi naizenean, konturatu naiz gauza batzuk zaharkituta geratu zaizkidala. Izatez aspaldi emandako hitzaldi bat zen, eta orduan aldaketa txiki bat egin diot izenburuari: *Larruaren kodea* edo. Pixka bat desberdintzeko orain urte batzuk bai Literaturulian bai beste gune batzuetan emandako hitzaldi hartatik. Oinarrian hura dago, baina orain eguneraturik eskainiko dut.

'Azalaren kodea' liburuak hitzaldiarekin zer lotura du?

Izenburuak keinu egiten dio aspaldiko poema liburu horri.

"ALDAKETA TXIKI BAT EGIN DIOT IZENBURUARI: 'LARRUAREN KODEA EDO'"

Kodearen etimologia latina da, latinekoa: *Codex*. *Codex* hitzak esan nahi du zuhaitzaren enborra. Horrek ekartzen digu gogora garai urrunetako koaderno egurrezko tapak. Baina ildo horretatik badugu beste etimologia bat, *codex membranei* eta latinez hitz horiek erabiltzen ziren liburuak izendatzeko. *Membranei* horiek, hitzak adierazten duen moduan, larrumintzak ziren; liburu orriak egiteko. Orduan, *codex* eta *codex membranei* horiek hartuta, hau da, egurra edo koaderno eta membranei, zer egin dut? Azal larrua eta idaztea literatura ardatzen inguruan horrelako iruditegi bat prestatu, hainbat oroitzen, pasarte eta poema makulutzat hartuta. Gizakion azala ere denboraren poderioz ondu egiten da, eta larru bihurtzen da. Larru horiek badute egurraren antza ere.

Zer gai lantzen dituzu?

Hautatu ditut hainbeste poema, baita prosa pasarteak ere, zeri-

kusia daukatenak nire literaturagintzan konstantea diren hainbat ardurarekin. Bata da literatura bera edo idaztea; bestea identitatea da; heriotza; gorputza, nire idazkeran oso deskribatuta dago gorputza; beste bat da artea, eta gizarte. Horiek izango dira testuen eta gogoeta horien bitartez islatuko diren gaiak.

Mitoak, kondairak, herri koplak eta narrazioak ere lantzen dituzu. Bilaketa handia egin behar izan duzu?

Ni neu pertsonalki ez, baina beste batzuek bilatutakoari kasu egiten diot. Mitoak eta kondairak hasierako hitzaldi horretan mundu grekolatinarrekin zerikusia zeukaten. Latinezko etimologia horrek ematen digu pista. Baina oraingo bertsioan ez dauka hainbeste pisurik. Nahiago izan dut neure poesiagintzara ekarri. Argitaratu gabeko poema batzuk

sartuko ditut, eta gure ingurune koplaren eta kondairaren batzuk ere.

Hitzaldi hauetan jendeak parte hartzeko aukera du?

Hitzaldiak desabantaila bat daukate liburuarekin konparatuta. Liburuaren gaineko solasaldiak egiten direnean publikoak alde aurretik irakurrita daukanez baditu hainbat galdera egiteko. Hitzaldiak beste formatu bat dira, momentukoa, bertatik bertarakoa. Orduan, pixka bat zailagoa izaten da solasaldia mamitzea. Baina beti egoten da galderaren bat. Behintzat aukera izango dugu. Gogoan dautkat Pikuxarren egon ginen aurreko aldian etxeko salan bezala sentitu ginela denok. Orotariko komentarioak eta galdera eta erantzunak izan ziren.



BAZTERRETIK

EKAIN ALEGRE GIL

Attrezzoa

Luzea da *mainstream*-aren itzala eta sarritan gizarte oso bat baldintza dezake. Historia garaikidean zehar errepikatu izan den zerbitu den arren, oso gertukoa dugu gurean egon den azken gertaera: Mitoa, nahiz eta Pellok aipatu zuen bezala, *Itzulera* abestia izan zen gerora etorriko zenaren aurrekaria. Baina gaurkoa ez da Mitoa buruzkoa, horrek dakarrenari buruzkoa baizik.

Hainbat ertz aurki daitezke fenomenoan. Lehena (musikarekin hasiko naiz), sortzen den obra orori narritiba epiko-mistiko bat ematea da, kontsumitzailearengan behar bat sortu eta produktu bat kontsumitzera bultzatzeko, izan abesti, kontzertu edo ikuskizun bat. Aukera galtzearen beldurra hedatzen da horrela balizko kontsumitzailearen artean, aldi berean higadura psikologikoa sortuz haiengan.

Bestalde, tradizioa *mainstream*-era eramatearen ondorioz, konbinazioak ongi funtzionatzeko duela ikusi da. Azkar iritsi dira formula

horren imitazioak: gero eta ugariagoak dira ZETAK taldearen kalkoak euskal musika taldeen artean. Haien produktua publiko orokorrari eskaintzeko, tradizioz janzten dute euren proposamen musikala, dela estilo aldaketa batekin edo boladari jarraitzeko propio egindako sormenekin. Bidea irekita dagoenez, errazagoa izango da izaera aldaketa saltzea eta *mainstream* berrian txoko bat ziurtatzea.

Amaitzeko, musikatik harago badago beste ondorioz, atzeragotik zetozenak, baina nabarmenago bistaratu direnak honen guztiaren harira. Eztaba daezina da tradizioak eta folkloreak Euskal Herrian duen pisua eta beste dimentsio bat eman diezaioke edozein gauzari, Mitoa delarik horren erakusle. Hala ere, uste dut gehiegitan erabiltzen dela kultura tradizionala atrezzo bezala eta barrutik hutsik dagoen bilgarria izatera mugatzea dela haren funtzioa azken urteetan, horrek ekar dezakeen guztiarekin.



Olatziko ihoteei buruzko komikiaren egileak eta sortzaileak.

Olatzagutiko ihoteak komiki bihurtuta

Otsailaren 28an Olatziko ihoteetan, ospakizunaren atzean dagoen kondairaren inguruko komikia aurkeztu zuten. Datorren urtean argitaratzea espero dute, eta aurretik 'fanzinea' erakutsi zien olaztiarrei

Eneida C. M. eta E. R. B. OLAZTI

Otsailaren 28an, Mari Arroka Urbasatik jaitsi eta Olatziko ihoteei hasiera eman ondoren, Olatziko ihoteei buruzko komikiaren aurkezpena egin zuten herriko kultur etxean. Komikia datorren urterako aurreikusten dute, baina aurretik komikia izanen denaren *fanzinea* aurkeztu zuten. Bertan, besteak beste,

Amaia Garmendia *Katius* eta Natxo Olaberria *Zirriborozikin* marrazkigileen ihoteetako pertsonaien irudiak agertzen dira. Proiektuaren ideia Adelaida Kintana Olatziko ihoteetako elkartearen kidearena izan da.

"Lehenengo aldia da Olatziko ihoteetan gaudela; komiki bat sortzeko, landuagoa eta aberasgarriagoa egiteko, lehenengo

pertsonen ez badira gauzak ikusten matizeak galtzen dira", esan zuen Olaberriak komikiaren proiektuaren aurkezpenean. "Ihoteak ezagutzera etorri gara, datorren urterako barneratuago izateko", gaineratu zuen Garmendiak. Ostiralean, beraz, "prebia bat, aurrerapena" aurkeztu zuten, eskuz egindako marrazkiekin osatutako fanzine

edo aldizkari bat, "bozetoak, zirriborroak" daude bertan. Aurkezpenean prozesua nolakoa izaten ari den ikusteko aukera izan zuten bertaratutako olaztiarrek. Komikia euskaraz eta gaztelaniaz izanen da, eta fanzinea euskaraz egin dute.

Olatziko ihoteen komikiaren proiektua "antzerki batean" oinarritzen dela esan zuen Garmendiak: "Aurreko urtean Mari Arroka antzerki bat egin zen, eta gidoi horretan oinarrituta egingo dugu komikia". Irudiak sortzeko orduan haien "rolloa" jarraitu dute, eta esaterako pertsonaien aurkezpena egiteko iratxo bati elkarriketa egin diote. Aurkezpenean argi utzi zuten ez direla olaztiarrek, eta lehenengo aurkezpen hori egiten ari zirela "ikusten baduzu zerbait horrelakoa ez dela" jakinarazteko; "zerbait lekuz kanpo dagoela esan edo Altsasuko dela... Horretarako etorri gara", azaldu zuen Olaberriak. Garmendiak aitortu zuenez, zamar handiei adarrak jarri zizkieten, eta "errieta" egin zitzaizkien.

Komikia

Nola heldu zitzaizen gasteiztar eta iruindar bati Olatziko ihoteei buruzko komikia egiteko proiektua? "Aneren lagunak gara, Adelaidaren alaba, eta orduan Adelaida gurekin harremanetan jarri zen Olatziko ihoteei garrantzia eman nahi zielako, eta ideia zen komiki ilustratu bat izatea ihoteak ezagutzera emateko". Horrela hasi ziren datorren urtean publikatzea nahi duten komikia.

Fanzinean, iratxoari egindako elkarriketaren bidez, bi sortzaileak aurkeztu eta "lagunek kontatutako kondairei eta bizi-penei esker" osatutako lana

azaldu zuten. "Hemen duzue herriari egiten diogun oparia".

Adelaida Kintanak emandako dokumentazioarekin egin dute lana, eta informazio horrekin pertsonaia bakoitzaren irudia eta deskribapen txikia osatu dute. Alkatea, esaterako, beti dotore jantzita doa, herrian eza-guna da, baina besteetan ez, eta bibotearekin eta txapelarekin doa. Alkatesa beti festarako prest dago, eta euria egiten badu gona buruan jarri "eta segi aurrera". Medikuak botikina eskuan "ibili munduan", eta apaiza umeentzako ogia eta ardoa, eta gaiztoentzako makila ematen die. Basozainaren irudia ere egin dute: Urbasa guztian begiak ditu eta belauetako minaren arabera eguraldia iragartzen du.

Olatziko ihoteetako zamar handiak eta zamar txikiak ere komikiaren agertuko dira: lehenengoak gurdien zaindariak dira, eta arkumez jantzitako basatiak dira, eta bigarrenak azkarrak eta zikinak dira. Nola ez, neskak ere ilustratutako istorioaren parte izanen dira: oso koloretsuak dira. Bestetik, alguazila kuxkuxeroa, ttuntuneroa batuta eramaten eta belargileak, "errezeta guztien jabeak", ere agertuko dira. Iratxoak izanen dira komikiaren beste pertsonaia bat, "bihurri baina ez maltzurak".

Mari Arroka, Urbasako Dama, ama lurraren jainko pertsonifikatua eta naturaren babeslea "eta proiektuaren arrazoia" izanen da komikiaren protagonista.

MARI ARROKAREN KONDAIRAN OINARRITUKO DA KOMIKIA; 'PREBIA' BAT KALERATU DUTE

Momotxorroen inguruko dokumental arrakastatsua

Otsailaren 28an aurkeztu zuen Galdakaoko Andra Mari dantza taldeak dokumentala Altsasun

ALTSASU

Momotxorroak: Kaos baten istorioa Galdakaoko Andra Mari dantza taldeak sortutako film dokumentala aurkeztu zuten beteta zegoen Iortia kultur gunearen aretoan. Bertan izan

ziren dokumentalaren protagonista altsasuarrak; Altsasuko inauterien berreskurapenean lagundu zuten Patxi Goikoetxea eta Amaia Oiarbide eta Enrike Zelaia. Dokumentalean ere Satur Leoz agertzen da, baina ez zen

aurkezpenean izan. Gogoan izan zituzten guztiak emanaldiaren amaieran.

Jon Eguskiza eta Kepa Otaegi Andra Mariko kideak eta dokumentalaren zuzendariak bi galdera planteatu zituzten proiektuaren aurretik: zertarako dokumentala egin eta nola egin. Amaieran esan zuten transmisio bat lan izan dela, eta horretarako bertan egon zirenek kontatu behar zutela. Besteak beste, altsasuarrak ariketa berdina egitera gonbidatu zituzten.



Film dokumentalaren aurkezpena Iortian. ANDRA MARI DANTZA TALDEA

"Mozorrotu gabe beste egun bat bezalakoa da"

Hiri ihotea ospatuko dute olaztiarrek larunbatean. Horren barruan IX. Mozorro Lehiaketa jokatu da. Bertan parte hartu izan dute Maite Barrenetxea Gomes eta bere koadrilakoek, eta lehiaketaren nondik norakoak azaldu ditu

A.A.I. OLATZAGUTIA

1 Dagoeneko mozorroa prest duzue?

Oraindik azken ukituak falta zaizkigu (astelehenean), baina gutxi gorabehera egina dago.

2 Noiz hasi zineten zertaz mozorrotuko zineten pentsatzen?

Abendu aldera bueltak ematen hasi ginen, baina zehaztu duela hilabete erdi-edo. Normalean, garaiz ibiltzen gara, baina aurten ez genekien atera edo ez. Hala geunden inauterietan hainbeste gozatu zuen lagun baten faltarengatik hain zuzen ere. Baina, azkenean, aurrera egin genuen, eta espero dugu berak ere gurekin jarraitzea. Aukeratu dugun mozorroak badu lana. Egia da beste urteetako lanak ikusita, beharbada aurtengoa ez dela hainbesteko. Baina mozorroak lana

badu. Izan ere, ahalik eta etxe-koena izatea gustatzen zaigu. Hau da, gauzak erostea saihesten dugu, nahiz eta, jakina, beti erosi beharreko zerbait dagoen.

3 Zerbait aurreratzerik?

Larunbatean Olatzagutiara etorri, eta kitto.

4 Aurten lehiaketan parte hartuko duzue?

Bai, beti parte hartzen dugu, duela bizpahiru urte izan ezik. Arazo batzuk izan ziren, ez genuen ongi prestatu eta ez genuen izenik eman. Baina, normalean, beti parte hartzen dugu mozorro lehiaketan. Aurretik izena emateko epea egoten da (asteazkenean itxi zen), emana dugu. Izen-abizenak, telefono zenbakia eta mozorroari jarritako izena eman behar dira.

5 Jende askok parte hartzen du?

Hasieran jende askok parte hartzen zuen. Baina, egia esan, parte hartzea urtero jaisten doa. Ez dakit, edo jendeak ez du parte hartu nahi, edo saria ez jasotzeagatik atzera egin dute... Ez dakit zer gertatzen den, baina, egia esan, hasi zenetik gaur egunera parte hartzea asko jaitsi da.

6 Nola parte hartzen du jendeak?

Normalean kuadrilan parte hartzen da, baina banaka edo binaka ere egin daiteke.

7 Zein da epaimahaia?

Herri epaimahaia dago. Hau da, guk gainontzeko parte hartzaileei puntuazioa ematen diegu. Eta aldrebes. Parte hartzen duten guztiek eman behar dute puntuazioa. Baloratzen da originaltasuna, mozorrotuta egiten den antzerkitxo. Guk joan zen urtean 1 formulako auto bat ge-



Bigarren saria eskuratu zuen Maiteren kuadrilak joan zen urtean. UDALA

nuen eta kuadrilakoek erregaia hartzeko unea antzestu genuen. Horretaz aparte mozorroak zer nolako eskulana izan duen baloratzen da. Joan zen urteko irabazleen mozorroa oso originala eta barregarria zen. Prestatzeko oso erraza zen. Originala zen, hori bururatzeagatik saria irabazi zuen. Esaterako, guk lan gehiago egin genuen, baina haiekin originalagoa zenez, puntuazio gehiago jaso zuten. Fregonaz mozorrotu ziren. Goma-apar moduko batzuekin tira batzuk egin zituzten, palankana batean itsatsi, buruan jarri eta hori zen mozorroa. Ez zen gehiago, baina jendeari gustatu zitzaion.

8 Noiz eta nola ematen da botoa?

Parte hartzen duten guztien izenarekin udalak papera ematen digu, eta puntuazioa ematen dugu. Zuk zure buruari ezin diozu punturik eman. Udaleko epaileak ere badaude, haiek ere puntuazioak ematen dituzte. Agian batzuk estrategia izango dute: "ez, ez. Ez eman horri bestela irabaziko du!" Guk, bereziki, gustatzen zaigulako parte hartzen dugu, ez irabazteagatik. Mozorroa prestatzerako elkar-

tzen gara eta ondo pasatzen dugu momentu horretan. Hori ere pozez hartzen dugu.

9 Sari banaketa, noiz?

Arratsaldean, 20:00ak aldera. Plazan dantzaldia izaten da. Musika gelditu eta sariak banatzen dituzte. 150, 100 eta 50 euroko hiru sari dira. Inauteriak bukatu ondoren jasotzen dugunez saria, dirua heldu den urterako gordetzen dugu.

10 Joan zen urtean bigarrenak, aurten zein asmo?


Berdin zaigu. Gustatzen zaigulako mozorrotzen gara, ez irabazteagatik. Jakina, saria jasoz gero egindako lanagatik poztzen zara. Baina ez da gure helburua saria jasotzea.

11 Zergatik parte hartu beharko litzateke mozorro lehiaketan?

Ongi pasatzeko. Jai eguna, festa eguna da. Mozorrotu gabe ez zara sartzen festaren bihotzean. Mozorrotu gabe ez da berdina, beste egun bat bezalakoa da. Mozorrotuta, hobe. Jende guztia Olatzagutiara etorri eta ongi pasatzera gonbidatzen dugu.

DISEINU ON BATEK BIZIBERRITZEN ZAITU

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe



gk



619 821 436
info@promunikaioa.eus
www.promunikaioa.eus
Foru plaza, 23 1. Aldean